

ONDORENGO BAIMENAK BESTEREZINAK DIRA

GURASOTASUNA

	Ama biologikoa	Ama biologikoa, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa		
		2019/09/01etik	2020	2021
Oinarrizko araudiko Nahitaezko zatia	6 aste	2 aste	4 aste	6 aste
Oinarrizko araudiko Borondatezko zatia	10 aste	6 aste	8 aste	10 aste
*GKE-ak hobetutako zatia	2 aste	10 aste	6 aste	2 aste

*GKE : Gobernu Kontseiluaren Erabakia

18 asteak luzatu egingo dira, oinarrizko araudiaren arabera legokiokeen luzapenez gain, kasu hauetan:

- Bi aste gehiago haur bakoitzeko, bi haur edo gehiago jaio, adoptatu edo harreran hartzen direnean.
- Bi aste gehiago adinbageak aniztasun funtzionala izanez gero.

NAHITAEZKO ZATIA

Berehala hartuko da eta etenik gabe.

BORONDATEZKO ZATIA

Etenik gabe edo zatika hartu daiteke.

Etenik gabe

Nahitaezkoa da etenik gabe eskatzea ondorengo kasuetan:

- Bi gurasoetako batek lanik egiten ez duenean.
- Adopzio, zaintza edo harreretan, haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.

Zatika (beti ere haurrak **12 hilabete** bete harteko mugarekin)

Baimen zatiak **asteka** hartuko dira, honela hasita:

- Ama biologikoa denean : Nahi duenean nahitaezko zatia amaitu ondoren.
- Beste gurasoa denean:
 - Ama biologikoaren nahitaezko zatia amaitu ondoren.

- Ama biologikoaren edo beste adoptatzailearen baimena amaitu ondoren (hobekuntza zatia barne).
- Ama biologikoak, beste adoptatzaile, zaintzaile edo harrerako gurasoak haurraren edoskitzea lanaldi osoetan metatzea eskatuz gero, denbora hori igarotakoan.

Baimena zatika hartzeko eskaera nola egin?

I Eranskina erabiliz eta ondorengo baldintzak beteaz

- Posta elektronikoko bidez
- 15 eguneko aurreabisuaz
- Baimena aste osotan banatu beharko da

Behin eskaera eginda ezin izango da aldaketarik egin

GKE HOBKUNTZA ZATIA

Borondatezko zatia amaitu ondoren berehala eta etenik gabe hartuko da **BETI ERE HAURRAK 12 HILABETE BETE ARTE.**

Salbuespenak : Kontratuaren iraupena laburragoa izatea. Kasu horretan ondorengo kontratazioetan baimenaren eskaera egin daiteke baimenaren gehienezko epea agortu arte eta **BETI ERE HAURRAK 12 HILABETE BETE ARTE.**

GAI OROKORRAK

Lan istripuren bat gertatuz gero baimena geroko utzi ahal izango da **BETI ERE HAURRAK 12 HILABETE BETE ARTE.**

Baimenaren iraupena eta eraketa (denboran zehar nola banatuko den) haurraren jaiotza datak zehaztu eta baldintzatuko du, eta baimena hartzeko eskubideaK irauten duen bitartean baldintza berak mantenduko dira, hots, nahitaezko, borondatezko eta hobekuntza zatien iraupena aldaezina da.

Ama biologikoa hiltzen bada, beste gurasoak hartu ahal izango du OINARRIZKO ARAUDIAREN arabera hari zegokion baimenaldi osoa edo geratzen den zatia.

Oinarrizko araudian ezarritako borondatezko zatiko asteak zatika hartzen direnean Entitate Kudeatzaileak ordainketa ez du egingo aste guztiak agortu arte.

BAIMEN PAREKATUAK DENBORA PARTZIALEAN HARTZEKO AUKERA

- Zerbitzuaren premiek horretarako aukera ematen badu (kasu bakoitzean banaka erabakiko da).
- Ezingo da lanaldia aldatu baimena gozatzeko hasi eta gero.

EDOSKITZEA

Baimen hau enplegatu publikoen eskubide indibiduala da, ezin zaio besterendu beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile do harrerako gurasori, eta haurrak urtebete egin aurretik hartu behar da inola ere.

Noiz hartu ahal da?

- Gurasotasun baimena etenik gabe hartu den kasuetan baimena bere osotasunean amaitu ondoren
- Baimena zatituta hartu den kasuetan, nahitaezko zatia amaitu ondoren.

Nola hartu daiteke?

- Egunean ordu bete, 30 minutuko 2 zati egin daitezke
- Jardunaren ordu beteko murrizketa
- Lanaldi osoetan metatuz. Horrela eginez gero **ESKAERA nahitaezko baimena amaitu aurretik egin beharko da**. Baimena disfrutatu ahal izango da
 - Gurasotasun baimenak amaitu ondoren
 - Haurra jaio denetik 18 aste igarotakoan

Eskaera **II eranskina** erabiliz egingo da.

I. ERANSKINA

AURREABISU-EREDUA

Izen Abizenak	
NAN	
Helbidea	
Posta kodea - Herria	
Eskaera data	

Pertsonal Zerbitzuari;

Idazki honen bitartez komunikatzen dut, arauak agindutako gutxienez 15 egun baliodun lehenagoko epearen barruan, gurasotasun baimena zatika hartu nahi dudala ondorengo arrazoiarengatik: (x batez dagokiona markatu)

	1 GURASOA EDO AMA BIOLOGIKOA	2 GURASOA
Jaiotza		
Adopzioa		
Adopzio aurreko zaintza		
Harrera		

Haurraren jaiotza data :

Zehazki baimena zatika hartzea eskatzen dut aste hauetan (Datak zehaztu aste osoak hartu behar direla kontuan izanda) :

NOIZTIK	NORA

Sinadura:

II. ERANSKINA

Eskatzailearen datuak

Izen Abizenak	
NAN	
Helbidea	
Posta kodea - Herria	
Eskaera data	

Gurasoaren izaera (x batez dagokiona markatu):

1 Gurasoa edo ama biologikoa

2 Gurasoa

Haurraren datuak

	Izen Abizenak	Jaiotze data
1 Haurra		
2 Haurra		
3 Haurra		

Edoskitzea ondorengo eran hartu nahi dudala jakinarazten dut (x batez dagokiona markatu):

1. AUKERA (2 hauetako bait hautatu x batez)

Egunean ordu bat

Egunean 30 minutuko 2 zati

Ondorengo datatik aurrera hartu nahi dut egunero edoskitzea (x batez dagokiona markatu):

Baimena amaitu ondoren (jarraian hartzen den kasuetan)

Nahitaezko zatia amaitu ondoren (baimena zatika hartuz gero)

2. AUKERA

Jardun osotan metatua

Ondorengo datatik aurrera hartu nahi dut edoskitze metatua (x batez dagokiona markatu):

1 Gurasorean jaiotza, adopzio, zaintza edo harreragatiko baimenaren ondoren

2 Gurasoaren jaiotza, adopzio, zaintza edo harreragatiko baimenaren ondoren

Haurra jaio eta 18 aste igaro ondoren

Sinadura: